


Euskal AEko eraikuntzaren kostuak % 0,2 igo dira 2022ko abuztuan

Urte arteko terminoetan, 2022ko abuztuan 2021eko abuztuaren aldean, kostuak % 10,4 igo dira

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko Eraikuntzaren kostuen indizea % 0,2 igo da 2022ko abuztuan, aurreko hilaren aldean. Aurreko urteko hil beraren aldean, kostuak % 10,4 igo dira.

Etxegintzako kostuak % 0,2 igo dira, eta Obra Zibilekoak, berriz, egonkor mantendu dira. 2021eko abuztuarekin alderatuta, prezioak % 13,7 igo dira Obra Zibilean eta % 9,6 Etxegintzan.

Euskal AEko Eraikuntzaren kostuen indizearen urte- arteko aldakuntza-tasak sektoreka



Iturria: Eustat. Eraikuntzaren kostuen indizea

Aurreko hilaren, 2022ko uztailaren, aldean, **lehengaien** kostuak % 0,2 igo dira, eta **eskulanaren** kostua egonkor mantendu da (% 0,0). Urte arteko terminoetan, lehengaien kostua % 11,8 igo da, eta eskulanarena % 5,8.

Etzegintzaren sektorean lehengaien kostua % 0,3 igo da hil artean, eta Obra Zibilarenean egonkor mantendu da. Urte arteko bilakaeran, Etzegintzako lehengaien kostuak % 10,8 hazi dira, eta Obra Zibilekoak % 16,1.

Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizea. Aldakuntza-tasak (p). Abuztua 2022

	Indizea	Aldakuntza (%)	
		m/m-1	m/m-12
Guztira	120,6	0,2	10,4
Erakikinak	119,9	0,2	9,6
Obra zibila	123,4	0,0	13,7
Lehengaiak	121,8	0,2	11,8
Erakikinak	120,9	0,3	10,8
Obra zibila	125,5	0,0	16,1
Laneskua	116,7	0,0	5,8

Oinarria 2015=100

m / m-1 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

(p)Behinbehineko datuak

Data 2022ko Irailaren 27a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Kostuen Indizea

Eraikuntzaren sektoreak kontsumituriko lehengaien prezioetan, 2022ko abuztuan, 2021eko abuztuaren aldean, igoerarik handienak sektore hauetan gertatu dira: *Petrolio finitza* (% 57,4), *Energia elektrikoa eta gasa* (% 43,3) eta *Industria kimikoa* (% 29,8). Lehengaien prezioetan igoera neurrizkoenak izan dituzten sektoreak, aldiz, honako hauek izan dira: *Makineriaren fabrikazioa* (% 4,0ko igoera) eta *Altzarien fabrikazioa* (% 4,4ko igoera).

Euskal AEn kontsumitutako lehengaien prezioak, sektorearen arabera (A64). Urte arteko aldakuntza-tasa (p). Abuztua 2022

	m / m-12
Ezmetalezko meak	7,2
Zuraren eta korboaren industria	17,4
Petrolio finitza	57,4
Industria kimikoa	29,8
Kaubua eta plastikoa	6,4
Produktu mineral ez-metalezkoak	15,5
Metalgintza	26,0
Metalezko artikulak	11,3
Material elektronikoa	4,7
Material elektrikoa	5,0
Makineriaren fabrikazioa	4,0
Altzargintza	4,4
Energia elektrikoa eta gasa	43,3

Oinarria 2015=100

(p)Behinbehineko datuak

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2022ko Irailaren 27a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Kostuen Indizea

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tf: 945 01 75 62